

Ihesi

ÁLVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN

Euskal Herria ezagutuz: **Muskiz (Bizkaia)**

Burdinazko itsasertza

Euskal itsasertzaren mendebaldeko muturrean, Kantabriarekiko mugan, Cobarón eta Pobeña auzo zaharrak daude, biak Muskiz udalerrian. Herrixka biak lotzen dituen lau kilometroko ibilbidean Bizkaiko garapen industrialaren historiara gerturatzeko ikasgela zabala aurkituko dugu.

Bilbotik era joateko modurik errazena autoz joatea da, baina ez da bakarra. Portugaleteko metro geltoki ondoan, Carlos VII.a kalean, ordu erdiro igarotzen da A-3335 autobusa. Handik metro gutxira, garai batean lurralde honetako jauntxoa izan zen Lope García de Salazar oinaztarraren dorretxea dago. Ez da, alabaina, Salazar leinuak inguruetan utzitako eraikin bakarra: Muskizen, Petronor findegiaurrean, Muñatones gaztelua dago. XV. mendearen amaieran, semeek espetxeratuta, bertan idatzi zuen Lope Garciak euskal historiografian garrantzi handia duen *Bienandanzas y Fortunas* lana, munduaren sorreran hasi eta banerizoen gerran bukatzen den kontakizuna. Han dago baita ere, Barbadun ibaiaren ertzean, salazartarren El Pobal burdinola, 1952ra arte lanean egon zena.

Ordubeteko ibilaldia egindakotan, autobusak Cobarónen bertan utziko gaitu. Oraindik ere zutik

irauten dute meatzarien zenbait etxek. 1882an Mac Lennan eskoziarrak erosi zuen Avelina meatzea, ordea, urak estalita dago, eta bulegoak izan zirenen aztarna gutxi batzuk baino ez daude.

Lehen trenbide, gaur pasealeku

Itsaso alderantz abiatuko gara. Eskuman, burdinatik karbono dioxidoa eta ura kentzeko erabiltzen ziren kaltzinazio-labeak ikusiko ditugu, 1973an itxi zituztenak. Erre-



pideari segituz aparkalekura helduko gara, eta handik helduko diogu Pobeñaraino doan oinezko bideari: Itsas Lur pasealekua. Aurrean, ekialdean, superportuko Punta Luceroko moila eta energia eolikoa sortzeko errotak ditugu ikusgai; mendebaldean, Castro Urdiales eta Kantabriako kostaldea.

Bidean zehar sakabanatuta dauden horma-irudiek inguruaren ekonomiarri eta naturari buruzko informazioa ematen digute. Antzinako lan jardueren aipamenek berengantzen dute gehienbat ibiltarien arreta. Amildegi eta zelai artean doa bidea, edonork eroso egiteko modukoa. Asfaltatuta dago eta aldapa arrastorik ere ez du. Hala behar du, meategietako trenbide zaharrenean ibilbide bera baitu Itsas Lur pasealekuak. Bide erdian, garabi txiki bat topatuko dugu: itsasertzetik aukarigotzeko balio zuen. Haietatik, gero,

Garai batean algak igotzeko erabiltzen zen garabia, Itsas Lur pasealekuan.



Minerala zamatzeko erabiltzen zen egitura erraldoiaren aztarnak. Gaur egun harrizko euskarriak besterik ez du irauten, altzairuzko zatia itsasoak suntsitu baitzuen iaz.

kimika eta elikadura industrietan erabiltzen den agar-agar konposatu kimikoa ateratzen zuten.

Aurrerago, Bizkaiko kostaldean minerala zamatzeko zegoen toki bakarraren aztarnak daude. Egun harrizko euskarri erraldoia besterik ez da, altzairuzko estruktura olatu batek eroan baitzuen iazko martxoan. Mac Lennanek berak

eraiki zuen: zama bertan itsasontziratuz, burdina Bilboraino garraiatzeko gastuak saihesten zituen eskoziarrak. Handik gertu, bidetik ehun bat metrora, ingeles eta Ibarra sendiaren kapitalaz eratutako Orconera Iron Oree konpainiaren mineral-garbitegi zaharraren aztarnak dira. Eguneko 300 tona mineral garbitzen

zituzten han, Triano mendietatik teleferikoan eroan ostean. Leku hartatik Pobeñarantz jaitsiko gara, aldapaz behera orain. Gure aurrean 900 metro luze den La Arena hondartza eta bertako duna azpimarragarriak ditugu, Barbadun ibaiaren bokalearen ondoan, eta den-dena Petronor findegiko erregai-gordetegien itzalpean.

Bokalean, harkaitz batean, XVIII. mendeko Sorospenaren Andra Mariren baseliza dago, Pobeñako padurak inguratuta. Pedro de Llanok eraiki zuen, Habanako (Kuba) portuan sartzerakoan bere itsasontzia ekaitz batetik onik atera zelako esker onez. Erdi Aroan, eta leku berean, mineral garraioa behatzeko gotorlekua eduki zuten salazartarrek. Trianotik kostaldera zihoan teleferikoaren hainbat zutabe ikus daitezke bertatik. Guk teleferikoz ez, autoz edo Pobeñatik Portugaletera doan A-3321 autobusez baizik, amaitutzat emango dugu ibilbidea. ■

La Arena hondartza, sasoi honetan ia hutsik, udan milaka lagun biltoki.

